

TENPERATURA UDABERRIAN


2019/03/22

Onintze Salazar

Urtaroz aldatzen dugun bakoitzean betiko galderak errepikatzen dira. Nolakoa izango da aurten udaberria? Betiko galderai betiko erantzuna: epe luzeko iragarpenen fidagarritasuna txikia da. Hortaz, itxaron egin behar, ez dago besterik.

Ezin da aurrera begiratu, bai, ordea, atzera. Eta atzera begiratzen badugu, datu mamitsuekin egiten dugu topo. Jakin dezakegu zein den joera, hots, udaberria “ohi” baino beroagoa edo hotzagoa izan daitekeen jakiteko pistak ematen dizkigu atzera begiratzeak. “Ohi” hori, klimatologiaz ari garenean, erreferentziatzko denboraldi zehatz bat da, kasu honetan, 1981-2010 hogeita hamar urteko denboraldia.

Pista horiek lortzeko tenperaturaren anomaliak hartu behar ditugu kontuan. Anomaliak esaten digu zenbat aldentzen den balio bat batezbesteko baliotik, kasu honetan urte jakin bateko udaberriko batez besteko tenperatura. Balio hori handiagoa baldin bada, anomalia positiboa izango da eta, txikiagoa baldin bada, negatiboa. Anomalia horiek koloreen bidez grafiko batean jasotzen ditugunean, anomalia positiboak gorritz eta negatiboak urdinez, ondorioak begi bistakoak dira. Grafiko honetan, EAEko udaberriko batez besteko tenperaturak adierazita daude, 1950etik 2018ra bitartean.



Eta ikusten dena, nahiko agerikoa da. 1997 urteaz geroztik, kolore gorria da nagusi, hau da, udaberriko tenperaturaren anomalia positiboa da urte gehienetan (udaberriaz ari garenean, meteorologikoaz ari gara, hau da, martxoa, apirila eta maiatza).

Datu horiek oinarri hartuta, eta berotze globalaren testuinguruan, esan dezakegu probabilitatea handiagoa dela udaberriak beroak izateko (anomalia positiboak) hotzak izateko baino (anomalia negatiboak). Hala ere, grafikoan ageri den bezala, 1997-2018 denboraldi

beroan ere udaberri hotzak izan genituen. Salbuespen horiek errepikatu daitezke eta agian aurten udaberri hotz bat etor daiteke, nahiz eta beroa izateko probabilitatea handiagoa izan.

Aurtengo udaberriak grafiko esanguratsu horri zutabe gorri bat edo urdin bat gehituko dion jakiteko, itxaron egin beharko dugu.